



**ERABAKIA, KIROL JUSTIZIAKO EUSKAL BATZORDEARENA, S.D. GORLIZ K.E. TALDEAK BIZKAIKO FUTBOL FEDERAKUNDEAREN ESKOLA FUTBOLEKO LEHIAKETA ETA KIROL DIZIPLINAKO LURRALDE BATZORDEAREN 2015eko OTSAILAREN 24ko EBAZPENAREN AURKA JARRITAKO ERREKURTSOA EZESTEN DUENA.**

---

**Espediente-zenbakia: 13/2015**

**AURREKARIAK**

**Lehena.**- 2015eko martxoaren 5ean, [REDACTED] jaunak, S.D. Gorliz K.E. taldearen presidentek, Bizkaiko Futbol Federakundearen Eskola Futboleko Lehiaketa eta Kirol Diziplinako Lurralde Batzordearen 2015eko otsailaren 24ko Ebazpenaren aurka aurkeztutako errekurtsuari sarrera eman zitzaion; ebazpen horren bitartez, kirol-talde horretako entrenatzaile [REDACTED] [REDACTED] jaunari 6 hilabetez gaitasungabetzeko zigorra jarri zitzaion, epailea iraintzeagatik (12.a) artikulua, Eskola-kiroleko lehiaketen diziplina-araubideari buruzko uztailaren 23ko 391/2013 Dekretuaren 17.2.a) artikuluari dagokionez).

**Bigarrena.**- Kirol Justiziako Euskal Batzordeak (aurrerantzean, KJEB) errekurtsu hori izapidetzea onartu zuen eta Bizkaiko Futbol Federakundeari espedientea eskatu zion; era berean, alegazio-izapidea esleitu zien dela lurralde-federazioari berari, dela Deustu Kirol Elkarteari, eta, hala nahi izanez gero, egokitzat jotako frogak aurkezteko aukera ere eman zien.



**Hirugarrena.**- 2015eko apirilaren 9an Bizkaiko Futbol Federakundeak eskatutakoari men egin zion eta Federakunde horretako Eskola Futboleko Lehiaketa eta Kirol Diziplinako Batzordeak gertakariari buruz emandako txostena igorri zuen.

**Laugarrena.**- Bestalde, Deustu Kirol Elkartek alegazio-idazkia aurkeztu zuen 2015eko maiatzaren 4an.

### **ZUZENBIDEKO OINARRIAK**

**Lehena.**- KJEBk du errekurtsio hau aztertzeko eskumena, hala xedatzen baitute ekainaren 11ko 14/1998 Legeak, Euskal Autonomia Erkidegoko kirolari buruzkoak, 138.a) artikuluan, eta urriaren 18ko 310/2005 Dekretuak, Kirol Justiziako Euskal Batzordea arautzen duenak, 3.a) artikuluan.

Era berean, aipatzekoa da uztailaren 22ko 125/2008 Dekretuak, Eskolako Kirolari buruzkoak, 22. artikuluan xedatzen duena, izan ere, artikulua horren arabera, honako hauei dagokie kirol arloko diziplina-ahalmena erabiltzea, zeinek bere eskumen-esparruan: lehen instantzian, parte-hartzaileen gaineko eskolako kirolaren organo eskudunei; eta bigarren instantzian, Kirol Justiziako Euskal Batzordeari.

**Bigarrena.**- Errekurtsioa aurkeztea eragin zuten gertakariak 2015eko otsailaren 21eko partida batean gertatu ziren; Deustu 06 D eta Gorliz 2006 A taldeen arteko partida zen, B Ligako Futbol-7 Benjamin-kategoriakoa. Epailaren aktan hitzez hitz honela jasota daude gertakariak (Sic):

*“48. minutuan [REDACTED] entrenatzailea kanporatu nuen eremu teknikitik atera zelako besoak altxatuta eta garrasika; niregana zetorren, nire erabaki batengatik protesta eginez, eta hitz hauek esan zizkidan: atzeratua eta putakumea zara! Ez nazazu*



*izorratu! Eta orain jarri aktan potroetatik ateratzen zaizuna, astakirtena! Babo arraioa! Eta gero, partida amaitu zelarik, zera esan zidan: pozik egongo zara, ezta? Hori da arbitrajea egin duzuna... Hori lortu nahi zenuen, ezta?”.*

Gertakari horiek direla-eta, Bizkaiko Futbol Federakundearen Eskola Futboleko Lehiaketa eta Kirol Diziplinako Lurralde Batzordeak Gorliz taldeko entrenatzaile [REDACTED] jaunari 6 hilabetez gaitasungabetzeko zigorra jartzea erabaki zuen 2015eko otsailaren 24ko Ebazpenean, epailea iraintzeagatik (12.a) artikulua, Eskola-kiroleko lehiaketen diziplina-araubideari buruzko uztailaren 23ko 391/2013 Dekretuaren 17.2.a) artikuluari dagokionez).

**Hirugarrena.**- Batzorde honetan aurkeztutako errekurtsioan, zigorra baliogabetzeko eskaera egin zen, edo, bestela, jarritako zigorra nabarmen murriztea, gaitasungabetzeko aldia askoz ere laburragoa izan dadin.

Nahi hori justifikatzeko, errekurtsogileak honako hau adierazi du:

***“Bigarrena.***- Alderdi hau ez dago ados, eta ez dator bat, inolaz ere, zigorrarekin, [REDACTED] jaunak ez zuelako epailea iraindu eta ez ziolako gutxiespen-hitzik esan.

***Hirugarrena.***- Alderdi honek dioena egiaztatzeko, gure taldearen aurkari izan zen Deustu 06-D taldeko pertsona jakin batzuei dei egitea proposatzen diogu Batzordeari; pertsona horiek ez dute inolako loturarik Gorliz Kirol Elkartearekin eta, beraz, erabat objektibo izango lirateke. Hartara, inolako zalantzarik gabe argitu eta egiaztatu ahal izango lukete [REDACTED] jaunak ez zuela epailea iraindu.

***Laugarrena.***- Alderdi honen ustez, pertsona horien deklarazioa baino ez dezakegu aurkeztu gure entrenatzaileari jarritako gehiegizko zigorra kentzeko defentsatzat, eta haien lekukotza funtsezkoa da gure klubarentzat. Pertsona horiek partidan izan ziren,



*zer gertatu zen ikusi zuten, eta ikuspegi guztietatik begiratuta, objektiboak dira kontu honetan; ez dute inolako interesik gai honetan.*

*Halaber, [REDACTED] jaunak Batzorde honetan deklarazioa egitea ere proposatzen dugu, Batzordeak haren esana entzuteko aukera izan dezan.*

**Bosgarrena.** - *Orain arte azaldutako guztia alde batera utzita, alderdi honen ustez, eta errespetu osoz esango dugu, sei hilabetez gaitasungabetzea gehiegizkoa da; izan ere, antzeko beste kasu batzuetan eta beste kategoria batzuetan, epailea ustez iraintzeagatik entrenatzaileari ez zaio sei hilabetez gaitasungabetzeko zigorra jartzen.*

**Seigarrena.** - *Hemen azaldutakoaren ordezt, egindako erreklamazioak aintzat hartzen ez badira, jarritako zigorra nabarmen murriztea eskatzen du alderdi honek, gaitasungabetzeko aldia askoz ere laburragoa izan dadin”.*

**Laugarrena.** - Errekurritutako ebazpena zuzenbideari doitzen zaion erabakitzeke gertakarien frogari buruzko gaia aztertu behar da.

Kasu honetan, federazioaren zigorra eragin duten egitateak epailearen aktaren bidez egiaztatuta daude, agiri hartan jasota baitaude eskumeneko federazioaren gaitzespena eta zigorra eragin duten ekintzak.

Ezagun denez, epailearen aktak egiazkotasun-presuntzioa du eta horrek esan nahi du egiazkotasun-uste hori zalantzan jarri nahi duen aldeak aurkako froga zehatz, eraginkor eta guztiz sinesgarria aurkeztu behar duela. *Hain zuzen ere, doktrina baketsua da epaileak egiazkotasun-presuntzioa duela, hala adierazten baitu Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiak: “izendatutako epailearen aktan jasotako gertakarien kontakizunen inpartzialtasuna eta objektibotasuna epaileak bi taldeekin zerikusirik ez izatetik eratortzen da” (2003ko urriaren 7ko Epaia, 2003\104967 JUR).*



Ildo berean, ekainaren 11ko 14/1998 Legeak, Euskal Autonomia Erkidegoko kirolari buruzkoak, dagozkien epaile-kategoriei esleitzen die kirol-lehiaketak zuzentzeko ahalmena 50. artikuluan; artikulua berean adierazten du ahalmen hori erabiliz epaile horiek hartutako erabakiak zuzentzat joko direla, eta epaileen aktak lehiaketak behar bezala garatzeko beharrezko dokumentuak izango direla. Antzekoa xedatzen du, eskola-kirolaren esparruan, uztailaren 23ko 391/2013 Dekretuak, eskola-kiroleko lehiaketen diziplina-araubideari buruzkoak, 30. artikuluan.

Kasu honetan, errekurtsua jarri duen alderdiak gertakariak ukatzen ditu eta epaile-aktaren egiazkotasun-presuntzioa indargabetu nahi du; horretarako, kontrako taldeko –Deustu K.E.– hainbat pertsonaren lekukotza bidezko frogak proposatu ditu –baina ez ditu pertsona horiek identifikatu–, bai eta [REDACTED] jaunaren lekukotza ere.

Proposatutako frogari dagokionez, zera adierazi behar dugu: errekurtsua jarri duen taldeak ez zuela alegaziorik aurkeztu federazioan, partida amaitutakoan egin zen epaile-aktari dagokionez, eta ez zuela ezein frogarik proposatu epaile-akta horren froga-balioa ahultzeko.

Aztergai dugun errekurtsua aurkeztu zenean proposatu zuen S.D. Gorliz K.E. taldeak lekukotza bidezko hainbat froga egitea, bere entrenatzaileari leporatzen zaizkion gertakariak indargabetzeko; baina egindako proposamena eskasa da: ez da zehazten Deustu Kirol Elkartearekin lotutako zein pertsonak eman dezakeen epaile-aktan jasotakoaren kontrako lekukotza, eta KJEBn lekukotasuna emateko identifikatutako pertsona bakarra zigortutako entrenatzailea bera da, [REDACTED] jauna. Azken batean, froga-proposamena hain zehaztugabea izanik, epaile-aktaren egiazkotasun-presuntzioa ez da indargabetu.



Gertakariak frogatzeari dagokionez, Deustu K. E. taldearen koordinatzaileak kirol-talde horri emandako entzunaldi-izapidean egindako alegazioak aintzat hartu behar dira. Alegazio-idazki horretan, bi aulkietatik (baita beretik ere) jokalariei tentsio eta lehiakortasun gehiegi eskatzen zitzaizela jasota dago, eta jarrera hori ez da egokitzat hartzen, lehiaketaren espiritua eta jokalarien adina kontuan hartuta.

Gorliz Kirol Elkarteko entrenatzailea kanporatzea eragin zuten gertakari zehatzei dagokienez, Deustu Kirol Elkartearen koordinatzaileak onartu du bera 30 metrotara zegoela eta distantzia horretatik ezin izan zuela entzun epailea iraindu ote zen, baina bai aipatu du teknikaria jokalekuan sartu zela eta kanporatua izan zela, eta kanporatu ostean espantuka eta garrasika ibili zela. Deklarazio horretan ez da berresten epaileak aktan jaso zuena, baina ez zaio horri kontra egiten ere, inolaz ere; aitzitik, entrenatzailearen jarrera epaile-aktan jasotakoarekin bat etor daitekeela agerian uzten du, eta ez dugu ahaztu behar epaile-aktaren edukia egiazkotzat hartu behar dela aurkako froga zehatz, eraginkor eta guztiz sinesgarria aurkezten ez bada, eta egiazkotasun-presuntzio hori indargabetzera behartuta dagoen aldeak ez duela frogarik aurkeztu espediente honetan.

Aurreko zirkunstantziak aintzat hartuta, diziplina-zigorra jartzea justifikatzen duten gertakariak frogatutzat jo behar dira eta, beraz, Bizkaiko Futbol Federakundeko Lehiaketa eta Kirol Diziplinako Lurralde Batzordeak 2015eko otsailaren 24an emandako Ebazpena zuzenbidearen araberakoa dela berresten da.

Jarritako zigorraren proportzionaltasunik ezari dagokionez, ez dugu ahaztu behar Eskola kiroleko lehiaketetako diziplina-araubideari buruzko uztailaren 23ko 391/2013 Dekretuaren 12.a) artikuluan teknikarien eta zuzendarien arau-hauste larritzat jotzen dela *“epaileak, teknikariak, kirolariak, kirol-*



*agintariak, ikusleak edo kirol-lehiaketan esku hartzen duten gainerako pertsonak laidotzea eta iraintzea*”; eta erregelamendu beraren 17.2.a) artikuluan horrelako arau-hausteentzako zigorra ezartzen da: *“Lizentzia baliogabetzea, hilabeterako gutxienez, eta urtebeterako gehienez”*.

Esku hartu duen lurralde-federazioaren diziplina-organoak badu nahikoa eskumen gertakariak balioetsi eta horien larritasun-mailaren araberrako zigorra jartzeko, baldin eta zigor hori arauan aurreikusitako zehapen-esparruan sartzen bada –kasu honetan halaxe da– eta errekurtsua egin duen alderdiak ukatzen ez badu (zehazki, horrelako arau-haustetarako aurreikusitako erdi-mailako zehapenetan biltzen da).

Are gehiago, Bizkaiko Futbol Federakundearen Eskola Futboleko Lehiaketa eta Kirol Diziplinako Lurralde Batzordeak 2014ko apirilaren 1ean egindako txostenean, zehapena maila jakin batean sailkatzea justifikatzen duten arrazoiak jasotzen dira; honako hau dio horri dagokionez: *“Ildo beretik, epaile-aktan azaldutakoaren hitzez hitzeko adierazpena (horren aurkako alegaziorik ez denez aurkeztu) eta, bestalde, jokatzeko zen partidaren kategoria (benjamin) aintzat hartuta, jarritako zehapenaren zenbatekoa esandako irainen larritasun-mailarekin bat datorrela esan daiteke, are gehiago, jokatzeko ari ziren taldeetako kideek zenbat urte dituzten aintzat hartuz gero*”; hortaz, Kirol Justiziako Euskal Batzorde honek ez du uste arrazoirik dagoenik arau-haustea egin zuenari jarritako zigorra murrizteko, errekurtsua aurkeztu duen taldeak modu subsidiarioan eskatzen duenez.

Kirol Justiziako Euskal Batzorde honek honako hau

### ERABAKI DU:

S.D. Gorliz K.E. taldeak Bizkaiko Futbol Federakundearen Eskola Futboleko Lehiaketa eta Kirol Diziplinako Lurralde Batzordearen 2015eko



otsailaren 24ko Ebazpenaren aurka jarritako errekurtsua ezestea; ebazpen horren bitartez, kirol-talde horretako entrenatzaile [REDACTED] jaunari 6 hilabetez gaitasungabetzeko zigorra jarri zitzaion.

Erabaki honek administrazio-bidea amaitzen du. Beraz, bere aurka aukerako berraztertzeko errekurtsua jarri ahal izango dute interesdunek Kirol Justiziako Euskal Batzordean hilabeteko epean, erabakia jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera, edo bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsua aurkez dezakete Bilboko Administrazioarekiko Auzietarako Epaitegian edo, errekurtsogileek hala nahi badute, beren bizilekuari dagokion Epaitegian, bi hilabeteko epean, erabakia jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera, halaxe xedatzen du-eta Administrazioarekiko auzien jurisdikzioari buruzko uztailaren 13ko 29/1998 Legeak.

Vitoria-Gasteiz, 2015eko maiatzak 11

José Ramón Mejías Vicandi

KIROL JUSTIZIAKO EUSKAL BATZORDEKO PRESIDENTEA